

## FUNTZESKO ELKARTEAK

Mundu osoan zehar lan egingo dugu enpresa handi, ertain eta txikiekin. Enpresa horiek bidezko prezioan merkaturatuko ditugun produktuak eskaini ahal izango dituzte.

Gure enpresak elkarteak garatu behar ditu behar bezala funtzionatzeko; hornitzaileekin, asosazioekin edo bezeroekin. Ezinbestekoa da ulertzea elkarte horiek nola lagunduko dioten gure enpresari arrakasta izaten.

1. Jessica, Angela, Andoni, Goiuri eta Asier gara gure bazkide nagusiak
2. Gure hornitzaileak: bigarren eskuko arropa edo objektuak ematen dizkiguten elkarteak, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) enkante-sistema, zordunen ondasun enbargatu eta besterenduekin eskaintzak antolatzen dituen, kiloka arropa ematen diguten dendak.
3. Bazkideengandik lortzen ditugun funtzesko baliabideak: kapitala, informazioa eta ezagutza.
4. Aliantzak: Gure produktuak konpontzeko, kanpoko zerbitzuak kontratatuko ditugu unean behar dugun berariazko konponketan diharduten enpresekin. Adibidez; antzinako objektuen zaharberritzailea, jostuna, teknikari langilea...
5. Bazkideen jarduerak:
  - a. Garraioa: Asier, helbide urbil batera bidali behar bada paketeren bat Asier izango da enkargatua pakete hori eramatea helbidera.
  - b. Administrazioa: Goiuri
  - c. Marketinga: Angela
  - d. Finantzak: Andoni
  - e. Giza baliabideak: Jessica
6. Hornitzaile batekin elkarte eskusibo bat sortzea, bere ekoizpen osoaren erosketa bermatzea.

Gizartearen barruan, produktuak emango dizkigutenak eta enpresa aurrera eramaten lagunduko ditugun elkarteak hauek izango dira: enpresak, banakako pertsonak, etab.

Salduko ditugun produktu guztiak ekologikoak izango dira, ekoizpen-prozesua hain izango da iraunkorra, bezeroetako batzuk gure establezimenduan erosten jarrai dezan lor dezakegu.

“Banco Santander” eta “Kutxabank”-en irekiko ditugu gure kontuak eta bertatik kudeatuko ditugu gastu guztiak eta irabazi guztiak.

Ezaugarriak hauek izango dira:

- Biltegia Berriz eta Zaldibarren artean egongo da
- Salmenta fisikoak egongo dira: Durangoaldean, Bilboaldean eta Urdaibaialdean
- Salmentak online ere bideratuko ditugu.
- Produktu matzuratuak dituzten enpresek, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.
- Edukiontzi bereziak izango ditugu, bezeroak produktuak botatzeko aukera izan eta gure enpresari dohaintza modura emateko.